




# nekatur *gara*

Euskadiko
landetxeen
elkartea.

www.nekatur.net





# "Etxekoa" zara

Hori esaten diegu gustura
sentiarazten gaituzten pertsonei,
familiako kidetzat hartzenditugunei.

Gure ostatuak zeu ere etxekoa zarela
sentitzeko ematen dizugun besarkada dira.

Gure lurra Euskadin egiten dugun moduan
bizitzea eta sentitzea nahi dugulako.

Etxean zaude.
***Ongi etorri!***







# Bizi Euskadi



## 1 Bizipen %100 euskalduna

Gure nekazaritza-turismoko establezimenduak, landetxeak eta landa-turismoko apartamentuen kokapenari esker, benetako Euskadiz gozatzeko izango duzu: gure ohiturak ezagutuz, gure hizkuntza entzunez eta plater tradizionalak janez.

## 2 Ondare historikoa

Gure ostatuak eta baserriak –euskal etxe tradizionalak– zaindu nahi dugun bizi-modu tradizionalari buruz ikasteko abiapuntua dira.

## 3 Anfitrioiak eta lagunak

Gogoko ditugun tokiak gomendatzen dizkizugu, joateko, jateko, erosteko nahiz zerbait hartzeko guk geuk aukeratzen ditugunak, gure altxorrez goza dezazun.

## 4 Milaka urteko hizkuntza bat

Izugarri gustatzen zaigu zuri euskaraz entzutea. Txokoa eta txakolina, ondo jateko. Egun on, kaixo edo aspaldiko, agurtzeko. Bai! Zatoz!



## 5 Ohitura on ugari

Festak eta erromeriak ospatzen ditugu, esku-pilotan aritzen gara, fandangoa eta arin-arina dantzatzen ditugu eta tabernetan kanta-kantari ibiltzen gara. Ohitura onak dauzkagu, gustatuko zaizkizu.







## 6 Oroitzapen bikainak

Merkatu tradizionalek eta tokiko dendek produktu freskoak eta artisau-lan propioak eskaintzen dituzte, euskal artisauen lana babesteko. Aukeratu zeurea eta lagundu ondare hori zaintzen.

## 7 Paisaiak eta ogibideak

Landa-inguruneetan gaude. Gure ardiek larreetan bazkatzen dute. Gozatu mendi eta haranetako berde freskoaz. Gelditu eta behatu edertasun naturala.

## 8 Istorioak eta kondairak

Gure pertsonaia mitologikoak, sinesmenak eta istorioak euskal herritarron milaka urteko ondarea dira. Haien historia kontatuko dizugu, zeuk ere senti dezazun.



## 9 Bidaiatu bermeekin

Sarean lan egiten dugu gure ostatuek indarrean dagoen legeria bete dezaten, jasangarriagoak izan daitezen, hobeto egokituta egon daitezen eta zuk segurtasun eta lasaitasun osoz bidaia dezazun. Egiten dugun guztia (zerbitzuak, informazioa, webgunea...) bihotz-bihotzez eta gure eskarmentuaz baliatuta egiten dugu egunero.

## 10 Abantailak eskaintzen dizkizugu

Gure taldeak doan aholkatzen zaitu, zure beharretara ondoen egokitzen den ostatua aukeratzen laguntzeko, eta doan kudeatzen ditu zure erreserbak. Halaber, ostatutik hurbil eskaintzen diren jardueretan deskontuak izango dituzu.



# Bezeroen testigantzak



## Elene Tarin

Nekaturrekin izan dudan esperientzia ezin hobea izan da. Aspalditik ezagutzen ditut eta haien profesionaltasuna, adeitasuna, bizkortasuna, eraginkortasuna eta kalitatea nabarmendu besterik ezin dut egin. Orain arte elkarte honek eman dizkidan zerbitzuak paregabeak izan dira.

Zerbitzuei dagokienez, ostatu bakoitzean izandako bizipenak bikainak izan dira.

Gauza onak besterik ezin ditut esan Nekaturri eta ezagutu ditudan ostatuen jabeei buruz (eta ez dira gutxi); pertsona zoragarriak eta beti maila ematea lortzen duten zerbitzuak. Eskaintzen dutena betetzen dute, inoiz huts egin gabe.

ACP
ASSOCIATION
CHAMOIS
PYRENEENS

## Association Chamoys Pyreneens

Gure elkarteak adimen-desgaitasuna duten helduentzako egonaldiak antolatzen ditu.

Nekaturrek duela urte askotatik laguntzen digu horretan, eta oso pozik gaude haien erantzuteko gaitasunarekin, prestasunarekin eta landetxeen erosotasunarekin.

Jabeak oso atseginak eta abegitsuak dira gure publikoarekin. Plazera da haiekin lan egitea.

# nekatur

## *Mila esker zuri*

*Eskerrik asko!*

Erreserba bakoitzak gure
nortasuna babesten laguntzen digu.

Trukean, benetako euskaldunon
harrera egingo dizugu.

**Zure zain gaude.**

943 32 70 90

agroturismo@nekatur.net

**www.nekatur.net**